XXIV. NARRAZIOEN LEHIAKETA

# NI GAZTEA NINTZENEAN...




XXIV CONCURSO DE NARRACIONES

# _CUANDO YO ERA JOVEN

Leioa KULTURA

**Zenbat aldiz gogoratu dituzu ume izan zineneko jolasak? Zenbat bider kontatu dituzu gazte denborako jaien oroitzapenak? Hartu papera eta boligrafoa eta hasi gogoratzen oroimenean dituzun aparteko uneak, une ahaztezinak. Leioako Udaleko Kultura Sailak Narrazioen XXIV. lehiaketa deitu du. Hona hemen oinarriak.**

## PARTAIDEAK

Nahi duten egile guztiek parte har dezakete.
MODALITATEAK:
· A kategoria: 18 urtera arte.
· B kategoria: 19 urtetik 39 urtera.
· C kategoria: 40 urtetik 59 urtera.
· D kategoria: 60 urtetik gora.

## AURKEZPENA

Partaide bakoitzak gehienez bi narrazio aurkeztu ahal izango ditu, euskaraz zein gaztelaniaz; eta gehieneko luzera lau foliokoa izango da. Lanak saririk gabeak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dira. Lehiaketan parte hartzen duten lan guztiak HIRUNA KOPIATAN aurkeztu beharko dira. Idazlanek izenburua edo izengoitia soilik eduki beharko dute, egilea identifika dezakeen xehetasunik gabe. Jatorrizkoarekin batera, gutunazal edo beste orri batean egilearen datuak jarriko dira (izena, abizenak, helbidea, adina, telefonoa eta posta elektronikoa), eta aurkeztutako lana argitaratu gabea eta beste lehiaketa batean saritu gabea dela dioen adierazpena. Gutunazalaren kanpoan edo orrian izenburua edo izengoitia eta zein kategoriari dagokion jarriko da.
OHARRA: Aurkezteko baldintzak betetzen ez dituzten lanak atzera botako dira.

## AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko epea 2023ko apirilaren 21ean amaituko da, ostirala.

## AURKEZTEKO TOKIA

Kultur Leioan aurkeztu beharko dira, norbera bertaratuz edo posta bidez.

KULTUR LEIOA
Jose Ramon Aketxe 11
48940 Leioa Bizkaia

Postaz bidalitako lanak zigiluz markatuta egon behar dira, apirilaren 21eko dataz beranduenez.

OHARRA: Bidaltzen diren lanak bidean hondatu edo galtzen badira antolatzaileak ez du erantzukizunik izango.

## SARI BANAKETA

2023ko ekainaren 9an, ostirala, arratsaldeko 18:30ean Kultur Leioan.

## SARIAK

Maila bakoitzean, honako sariak emango dira:
· 1. saria: 250 euro, garaikurra eta diploma.
· 2. saria: 125 euro, garaikurra eta diploma.

Egileek ezin izango dute sari bat baino gehiago lortu. Sariak eman gabe gera daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen badu. Sari guztiei egoki den PFEZaren atxikipena egingo zaie. Epaimahaiaren erabakia apelaezina da, eta haren irizpidea gailenduko da uneoro. Epaimahaiaren erabakia nahitaez onartu beharrekoa izango da eta beraren iritzia nagusi izango da. Saritutako lanak “2023ko Lehiaketa Liburuan” argitaratuko dira. Leioako Udalak saritutako lanen jabetza bereganatuko du, baita eurak erakutsi, berregin edo argitaratzeko eskubidea ere. Ez da egile-eskubiderik eskatzerik izango. Lanak Udalaren kultur ondarearen jabego geratuko dira eta ezin izango dira ez saldu ezta erosi ere egin. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak oso-osoan onartzen direla esan nahi du.

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazi nahi dizugu lehiaketa honetarako adieraziko dituzun datuak kultur aretoko lehiaketetako partaideen datu-fitxategi batean erregistratuko direla; informazioa Leioako Udalaren Kultur arloko langile eta arduradunek jasoko dute eta fitxategiaren arduraduna Leioako Udala izango da (Elexalde auzoa 1).

**Cuando yo era joven... ¿Cuántas veces has recordado aquellas experiencias de cuando eras niño/a? ¿Cuántas veces has contado esos recuerdos imborrables de tu juventud? Coge papel y bolígrafo y comienza a recordar todos esos momentos increíbles e inigualables que guardas en tu memoria.**

## BASES

Podrán participar cuantas personas lo deseen, en las siguientes categorías de edad:
· Categoría A: hasta 18 años
· Categoría B: de 19 a 39 años
· Categoría C: de 40 a 59 años
· Categoría D: desde 60 años

## PRESENTACIÓN

Cada participante podrá presentar un máximo de dos relatos, en euskera o en castellano, con una extensión máxima de cuatro folios por una cara. Los trabajos deberán ser originales, inéditos y no premiados en otros concursos. Las narraciones se presentarán por TRIPLICADO. Las obras deberán contener solamente el título o pseudónimo, careciendo de detalles que puedan identificar al autor/a. Acompañando a los originales se incluirán en otra hoja o sobre los datos del autor/a: nombre y apellidos, dirección, edad, teléfono de contacto, dirección de correo electrónico, si la tuviese, y una declaración de que el trabajo presentado es inédito y no premiado en otro concurso. En el exterior del sobre, el título o pseudónimo y la categoría a la que pertenece.
NOTA: Se rechazarán los trabajos que no cumplan los requisitos de presentación.

## PLAZO DE PRESENTACIÓN

El plazo de entrega de los trabajos termina el viernes 21 de abril de 2023.

## LUGAR DE PRESENTACIÓN

Los trabajos deberán presentarse, bien personalmente o por correo, en:

KULTUR LEIOA
José Ramón Aketxe, 11
48940 Leioa-Bizkaia

Los relatos enviados por correo deberán estar sellados a más tardar en fecha 21 de abril.
NOTA: La organización no se responsabiliza de la pérdida o deterioro que pudieran sufrir las obras en su envío.

## ENTREGA DE PREMIOS

9 de junio de 2023, viernes, a las 18:30 horas, en Kultur Leioa.

## PREMIOS

En cada categoría se otorgarán los siguientes premios:
· 1er premio: 250 euros, trofeo y diploma.
· 2º premio: 125 euros, trofeo y diploma.

Ningún autor/a podrá beneficiarse de más de un premio. Los premios podrán ser declarados desiertos a juicio del jurado. Todos los premios están sujetos a la retención del IRPF correspondiente. El jurado se compondrá por tres personas relacionadas con el mundo de la escritura y la cultura. El fallo del jurado es inapelable, prevaleciendo en todo momento su criterio. Los relatos ganadores se publicarán en el ‘Libro de Concursos 2023’. Las obras premiadas quedarán en propiedad del Ayuntamiento de Leioa, quien se reserva el derecho de su exposición, reproducción o publicación, sin que ello suponga ni sean exigibles derechos de autor, pasando a incrementar el patrimonio cultural municipal y sin que puedan ser objeto de compraventa. La participación en el certamen implica la total aceptación de las bases.

En cumplimiento del artículo 5 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de carácter Personal, se le informe de que los datos que incluirá en este impreso se registrarán en el fichero de datos de participantes en Concurso del Área de Cultura; que su finalidad es la de conocer los aspirantes al concurso convocado; que los destinatarios de la información serán los empleados y los responsables del Área de Cultura del Ayuntamiento de Leioa; y que el responsable del fichero es el Ayuntamiento de Leioa (Bº Elexalde, nº1).




Leioa
KULTURA